

## EUSKARA ATEKA LARRIAN OTE?

*“Halaber, eta Plangintza Estrategikoaren fase berri batean, egikaritze fasean sartzeraz goazelarik, egoera soziolinguistikoaren inguruan, eta aspaldiko urteetako euskalgintzako lanaren inguruan hausnarketa egin beharra dago. Izan ere, euskaldungoaren kopurua gaur oraindik %23koa izateak, gogoeta sakona eragin behar digu bideratu diren Hizkuntza Politiken inguruan eta horretan berri mugimenduek egindako lanaren inguruan. Izan ere, portzentaia horrek, euskaldungoaren masa kritiko horrek, euskarak oraindik arrisku egoeran jarraitzen duela adierazten du. Horrenbestez portzentaia baxuegia da da euskarak behar duen normalkuntza politika ausarta indartsuki planteatzeko. Urtetan kopuruak gora ez egitearen arrazoietan sakondu beharra dago eta berraztertu zein diren elkartee-tako ihardueraren irizpide eta ondorioak”. (2000ko urtarrilaren 3tik 7ra bitartean presoan eskubideen alde barrualdia burutuz Iruñean bildurik egon ziren euskaltzaleak eginiko txostenetik hartua).*

### **1. Iragana aztertuz etorkizuna urratu**

Ez da nire asmoa, euskararen historiako zoko sakonak arakatzeko hastea, ezta etorkizuna iragartzea ere. Batak zein besteak orrialde gehiago eskatuko luke. Honako lantxo honetan euska-

rari buruzko gogoeta edota hausnarketa batzuk jaso nahi nituzke, KARMEL aldizkari honen 2000 urteko lehen ale honetan.

Horretarako nolabaiteko abiapuntua hartu behar eta urriaren 24an AEKK Saran eginiko jaialdian pertsona bati entzundako *“borrenbeste gazte euskararen alde egonik, ziurtatua dugu etorkizuna”* hitzak gogoratu nahi nituzke lehen eta behin. Era berean, jakina, Sarako elizako dorreko erlojuren azpiko aldean idatzirik ageri den *“Oren guziek dute gizona kolpatzen, azkeneoak du hobirat ebortzen”* ahaztu gabe.

Mende bati agur egin eta beste bati atcak irekitzen dizkiogun abagune honetan, badugu euskaldunok joan berri dugun mendeari, gaintik bederen, begiratu beharra, eta izan ditugun akatsak eta lortu ditugun emaitzak ikusi ondoren, etorkizunari bideak norabide zuzenetik egiteko.

Gertakariak historiaren harian elkarren artean lotura estuak dituztela jazo ohi dira. Horrela bizitzako une bakoitzak eta gertakari bakoitzak, guk sarritan hala uste izan ez arren, ondorengoak baldintzatzen ditu. Hori dela eta esan ohi da *“historia magistra vitae”* (historia bizitzako irakaslea) dela.

Euskarak ere badu, jakina, bere ibilbide historikoa; hain zuzen ere, oraingo egoera ulertzeko nahi eta nahiez ezagutu beharrekoa. Beraz, iragan berri dugun mendeari begiratu nahi diot, gaintik bada ere, hizkuntz alorreko irakasbiderik argienak ateratzeko asmotan.

## **2.- Euskara azken mendean.**

Orokorrean, amaitu berri dugun mendeak, Euskal Herriaren historian, beste munduko herri gehienetan bezala, izugarritzko eragina izan duela onartu beharra dugu.

Eragin hori bi arlotan gauzatu da, bereziki. Batetik, teknologiak bazter guztietara ekarri duen iraultza izugarrian; bestetik,

komunikabideek, irakaskuntzari hertsiki loturik, sortu izan duten hizkuntz aldaketa erabatekoan.

“Teknologien mendea” dei dezakegunak goitik behera, ezkerretik eskuinera astindu eta aldatu ditu gure herriko bazterrak zenbait jenderen bizitza-ingurunea zeharo aldatuz. XIX. mendean hasi eta XX.ean burututako industrializazio basatia egunetik egunera indartu ahala kanpotik jende-uholde handiak gure artera etortzeak izugarrizko eragina izan zuen. Bertako jendea ere herri txikietatik hiri handi erdaldunduetara eramantzen zuen. Eta horrek, ondorio sakonak ekarri zituen euskararen bizitzarako, erdararen peko ziren guneak ugaritu baitziren.

Horrela, mendearen hasieran, hiri handiak eta Nafarroako eta Arabako lautada zabalak izan ezik, oraindik erabat edota hainbatean, behinik behin, euskaldunak ziren alde zabalak, mendean zeharko zenbait gertakari negargarriren ondorioz, Euskal Herrian inoiz izan dugun abiadurarik handienean erdaldundu zitzaizkigun. Euskara lurraldez lurralde atzeraka joate hori, alabaina, ez zen zoriaren zoriaz edo berez gertatu.

Espainiako estatuburuek, batez ere gerra zibilaren ondoko urteetan zehar, asmorik maltzurrenak erabiliz Euskal Herria erdalduntzera berariaz bideratutako plangintzen ondorio izan zen hainbatean. Etsaiek euskara hondamendira eramateko erabilutako tresnen artean, besteak beste irakaskuntza eta administrazioa aipatu behar ditugu.

Hain zuzen ere, ordurarte irakaskuntza sistematik nahiko kanpo bizi izandako euskal gizartea, Espainiako inperioak berariaz ezarritako nahitaezko irakaskuntzaren bidez, zeharo erdalduntzeko bidean jarri zuten. Hau izan zen armarik indartsuenetarikoa.

Administrazio erdaldunaren bidez, bestalde, euskaldun izandako eremu batzuk guztiz erdalduntzeko. Horiek eramantzen zuten, esaterako, Iruñea inguruan bizi ziren herrixketako jendea erdararen olatu bortitzen artean itotzera. Beste hainbeste gertatu

zen hizkuntzak babes txikia zuen guneetan, adibidez, Gasteizen edota Bilbon, sakabanaturik bizi ziren euskaldunen artean.

Orokorrean, amaitu berri dugun hogeigarren mende horretan zehar, hiru aldi ezberdin nabarmenduko nituzke: Espainiako gerra zibila aurreko urteak (Primo de Riberaren diktadura-aldia izan ezik); gerra zibilaren ondoko urte latz eta itogarriak; eta mendearen azkenaldiko susperraldia. Izan ere mendearen hasieran eta gerra zibilaren aurreko urteetan nahiko mugimendu indartsua izan genuen euskararen alde, asko konturatu baitziren gogoz eta arduraz jokatu ezik galzorian jarriko zela euskara epe laburrean.

Alabaina, Espainiako gerra zibilak erabat moztu zuen euskararen aldeko mugimendu hori. Gerra ostean urte tamalgarriak izan genituen. Euskara gaitzetsia eta baztertua izateaz gainera, eraso ere izan zen. Eta ez bakarrik euskara. Euskaldunak ere bai. Euskararen aztarnak ere ezabatu nahi ziren, nonbait.

Horrek izugarrizko etendura sortu zuen zenbait lekutan, batez ere belaunaldiz belaunaldi egin ohi den familia giroko transmisioan. Adierazgarri argiak aurkitzen ditugu Gasteiztik Iruñera doan errepidearen inguruetako herrietan. Euskaldun hutsak ziren alde horretako zenbait herri zeharo erdaldundunak izatera etorri ziren.

Hiri handi eta ertainetan ere garrantzi handia izan zuen aurkako giro horrek euskara ageriko bizitzatik zeharo baztertua izan zen. Euskara erabiltzea, berriz, zigortua. Gorago esan den bezala, gizartearen bilakaeran geroago eta indar handiagoa hartzen ari ziren administrazio eta irakaskuntza izan zituen estatutuak gure herritarrak erdarara makurrarazteko armarik indartsuenak.

Dena den gure herri txikietan eta baserri sakabanatuetan, eragozpenak eragozpen, zorionez gogor eutsi zioten euskarari etsaien amorru bizirako. Herri handiagoetan ere, gerra osteko

lehen urte larri deitoragarrien ostean, langileen mugimendua indartzen joan zen adinean, abertzaleak ere hasi ziren buruak sasiarteetatik bideetara ateratzen, sator-zuloetako ilunpeetatik zelai zabaletara irteten.

Horrela, pixkanaka-pixkanaka izan bazen ere indartuz joan zen hor-hemenka euskararen aldeko mugimendua, hirurogei-hirurogeita hamarreko hamarkadetan ikastolak eta adinekoentzako euskarako ikastegiak antolatu eta zabaltzeari ekinez. Elizak ere izan zuen horretan eskuhartzerik ugari, Vatikanoko kontzilioaren deiei erantzunez herri eskubideen aldeko borrokan jardunez eliz lokaletako ateak ireki baitzituen eginkizun guzti horietarako.

Etengabeko ahalegin handi horien ondorioz mendearen azkenaldian nahiko erroturik eta indarturik ageri zaigu euskara gizarteko hainbat eremutan: irakaskuntzan, komunikabideetan nahiz administrazioan. Mendeko azkenaldiko borroka eta ahaleginen ondorioz, leku zabala egin zaio euskarari Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lurraldeetan batik bat; estua goa bada ere, Nafarroan ere bai. Iparraldean, ostera, larri gorreran jarraitzen du oraindik.

Edonola ere, esan beharra dago diktaduraren garaiko ondorioak oraindik indarrean dirautela hainbat lekutan, orduan sortu zen erdalduntzeak etendura sakona sortu baitzuen adinekoen eta gazteen artean. Etendura hori ez da oraindik guztiz konpondu.

### **3. Gaur egungo egoera**

Kanpotik begiratuta, itxura batean, euskara inoiz baino indartsuagoa ageri zaigu gaur egun. Dagoeneko egina du lekua, hainbatean, une honetan gizartean indar-gune nagusiak diren irakaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan. Inoiz ez dugu izan orain beste baliabiderik, ezta hainbeste euskaldun

eskolatu, prestaturik ere. Euskarak hainbatean oinarriak jarri ditu gizarte moderno honetan luzaroan irautea ziurtatzeko.

Hala ere, gaurko etsaiak lehengoak baino askozaz indartsuagoak ditugu. Lehenago, gizarteko aldaketak askoz ere geldia-  
goak izatean, arriskuak ere txikiagoak ziren. Oso ongi gogora-  
tzen digu guzti hori "*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*"  
liburuan Eusko Jaurlaritzak, euskararen ahuleziak gogora ekar-  
tzerakoan.

Euskara itxura batean indartsu dagoela uste izate horrek, alabaina, ikastolen eta euskararen aldeko zenbait ekintzetan asti eta diru ugari emandako hainbat euskaltzale loak hartzea ekarri du. Egin-eginean euskarari irakaskuntzan, administrazioan edota komunikabideetan neurri bateko lekua egiteak, bestelakorik gabe, berezko konponbidea ekarriko zuelako uste ustela.

Euskarak, alabaina, erabilpenari dagokionez estu eta larri dirau, bizi ezinean, etorkizunari aurre egiteko ahul eta txiro. Egoera larri hori, baina, ez inguruko erasoen ondorioz, soilik gertatu. Zoritxarrez, eguneroko harremanetan euskara erabiltzeko ardurarik jartzen ez duen hainbat dugu gure artean. Hizkuntza ordezkapen larria ari zaigu gertatzen, euskararen kaltetan, jakina. Semaforoa gorri dugula esan dezakegu.

Argi dakusagu zer gertatzen ari den Iparraldean, euskara nabari-nabarian atzeraka doalarik. Nafarroan ere eragozpen handiak eta etsai biziak ditu irentsi nahian. Araban, zer esanik ez, oraindik ezer gutxi lortu dugu euskarari irakaskuntzan bertan ere benetako bideak irekitzeko. Bizkaiko hainbat herritan, ere, oso zaila dugu hainbeste erdaldunen artean euskaraz bizitzea. Hiri handietan erdaldunak ditugu jaun eta jabe. Ondorioz, gaur egun euskaldun gehienok ezin dugu euskaraz bizi Euskalerria deitzen dugun honetan.

Eta hau normaltzat jotzen da. Elebidunak izan behar omen dugu! Mundura zabaldu behar ei ditugu begiak eta asmoak!

Baina, ezer gutxi egingo dute hori ahobero horiek, beste hainbat hizkuntza ikasteko eta praktikatzeko aparteko ahaleginak egiten dihardutenean, besterik ezean, ulertzeko adina euskara ikasteko! Elebidunak bai, baina, euskaldunok bakarrik! Eurak, inolako lotsarik gabe, elebakar jarraitzen dute.

Irakaskuntza bidez Euskal Herria euskaldunduko zela uste zutenen bideek ere porrota ekarri dute. "D" ereduari ari diren umeak ere doi-doi ikasten dute gutxienezko maila, oso gutxitan lortzen dutela euren eguneroko hizkuntza bizia egitea. Beste ereduari ari direnek (haur gehienak, oraindik) are gutxiago. Ez dute gutxienezko euskara mailarik ikasten. Norantz goaz horrela?

#### **4. Etorkizunerako bide bila.**

Egoera horren aurrean, lan honen hasieran jarri dugun tesuan ageri den bezala, asko dira gogoetak eta hausnarketak egin beharra aldarrikatzen dutenak. Egiatan, itxura batean hainbat aurreratu badugu ere, euskarak ez du, oraindik, inolako presentziarik gizarteko hainbat alorretan. Beste batzuetan, ostera, hutsaren hurrengo baina ez. Horrek arriskuan jar dezake bere etorkizuna.

Behar bada, euskararen etorkizuna gehiegi oinarritu dugu eremu zehatz batzutan, esaterako, irakaskuntzan, eta horrek porrot egitean, areagotu egiten dizkigu barruko kezka eta larri-dura.

Horrek kezkaturik ahalegin handiak egin dira zenbait alorretan irtenbide bila. Hor ditugu, besteak beste, "Euskararen unibertsoa" osotzen zutenek sortutako "Kontseiluak" azken hilabete hauetan egin ditugun ikerketak eta proposamenak. Gorago aipatu dugun Autonomi Erkidegoko Euskararen Aholku Batzordeak ere ikerlan zehatza burutu du eta hainbat proposamen eskaini *Euskara biziberritzeko Plan Nagusia* liburuxkan.

Bai batzuek bai besteek, lehena eta oraina abiabidetzat hartu eta etorkinerako bide sendoak urratu nahi dituzte, hain aldakorra dugun gizartean euskarak bere iraupena ziurta dezan. Ez da kontua, jakina, lehenago esaten genuen harako hura “*gu bizi garen artean euskarak iraungo du*” betetzen jarraitzea. Gure herriak ere badu, euskaldun izateko eskubidea. Ez da beraz norbanakoen zera bakarrik. Euskaldunok, baina, ezinbestekoa dugu gizarte euskalduna gure eskubideak errespeta daitezen.

Hori dela eta, ahalegin sakabanatu ugari egin arren, ezingo da hori lortu, eremurik eremu gizartea euskalduntzeko bideak jartzen ez baditugu. Horretarako ezinbestekoa dugu, euskara bazter guztietara zabaltzeko, plangintza estrategikoak egin eta abiabidean jartzea. Ikus dezagun bada zer ditugun plan estrategiko horiek.

## 5. Plan estrategikoak

Une honetan euskararen etorkizunak kezkatu ari diren bi gune nagusienak (*Euskararen Aholku Batzordea* eta *Kontseilua*) bat datoz plangintza estrategikoak martxan jarri behar direla esaterakoan. Euskararen Aholku Batzordeak bere gogoetak “*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian*” ematen ditu aditzera. “Kontseiluak” aurreratuago du lana, alorrik alor plan zehatzak proposatuz, “*Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa*” deitu duenaren bidez:

1.- Euskararen Aholku Batzordeak “***Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian***” Euskara indartzeko abiabide nagusiak aurkeztu digu, ezinbestekotzat jotzen duela gizarteko eremu guztietara heltzea. Liburuko azterlana aurkeztu aurretik honako hauek irakur ditzakegu:

“Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-agintariei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna” (25. orr.).



“Plan estrategiko hau ez da dokumentu itxi eta aldaezina, irekia eta eten gabe egokitzeko sortua baizik, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektore eta taldeen ekarriek aberastuko duten neurrian eguneratzen joango baita. Beraz, plan honek Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak erabakitzeke, foru-aldundiek eta udalek bideratu ohi duten euskararen aldeko sustapen-politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko oinarrizko erreferentzia eta tresna izan nahi du” (25. orr.)

Aurrekoak esan da gero zeintzuk diren “*Jardun-esparru estrategikoak*” azaltzera jotzen du: “Euskararen geroratzeari dagokionez, honako jardun-esparru estrategikoetan gauzatutako ekimenak aztertu dira: euskararen eta euskarako irakaskuntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zein unibertsitatean; helduen euskalduntze-alfabetatzea; euskararen familia bidezko jarraipena; euskararen corpora eta kalitatea; eta euskararen egoera Nafarroan eta Iparraldean”.(26. orr.).

Jarraian, liburuan zehar, arlorik arlo euskararen indarguneak eta ahuleziak aurkezten dizkigu datozen hamar urteetarako erronka nagusiak aztertzen jardunez. Bertan ezinbestekotzat jotzen da euskararen iraupenerako plan estrategikoa eratu eta martxan jartzea.

2.- Kontseiluak “***Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa***” urrats berriak eskaintzen dizkigu. Planaren nondik norakoak aztertzeaz gainera, arlorik arlokako plan konkrituak ere gertatu ditu. Talde honen lanean honako hauek nabarmenduko nituzke:

“Bai Euskarari Akordioa sinatzean, gizarte cragileek euskararak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesu batean elkartzeko konpromisoa adierazi dute. Halaber, prozesu hori hizkuntza normalizaziorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarriz burutuko dute hitz

eman dute. Hauek honela, Bai Euskarari Akordioa sinatu duten 687 gizarte eragileek 1999ko ekainaz geroztik hartu dute parte Plan Estrategikoan”.

Horrela Plan Estrategikoaren misioa “ Euskarak garapen osoa lor dezan, bere normalizazioa behin betiko bideratzea” dela esan ondoren **Plan estrategikoaren diseinua** ere eskaintzen digu faseetan banatuta:

**“Lehen fasean, DIAGNOSTIKOA** egiten du, hurrengo faktore bi hauek nabarmenduz:

a) Euskarari negatiboki eragiten dioten faktore nagusiak:

- Euskaldun kopurua txikia izatea eta ondorioz, eskari soziala horren araberako izatea.

Bizi dugun egoerak euskarari negatiboki eragitea, politikoki erabilia izateko dagoen arriskuarengatik

b) Euskarak garatzeko balia ditzakeen aldeko faktore nagusiak:

- Gizarteak euskararekiko duen pertzepzioa nabarmen aldatzen aritzea eta etorkizuna euskaraz datorrela uste izatea.

Oro har herritarrek euskararen aldeko joera azaltzea; horrez gain, euskaldun kopurua handitze bidean izatea eta horrek eskaera soziala areagotzea.

Euskara herritarrentzat faktore integratzaile bilakatzea eta horrek dakarren balio erantsia.

**Bigarren fasean: HELBURUAK** laburbiltzen ditu:

- Euskararen erabilera erakundeen kanpo eta barne funtzionamenduan areagotzea.

- Administrazioekiko lankidetzaren areagotzea, erakunde

- publikoei baitagokien hizkuntza normalizazio prozesuaren lidergoia eta babesa eskaintzea.

- Euskararen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa areagotzea.

**Hirugarren fasean:** KONPROMISO PROPOSAMENAK egingen dira

- Euskara erabilera hizkuntza izateko behar diren bitartekoak ezartzea.
- Gure hizkuntzak gizarte kohesiorako duen garrantzia azpimarratu eta berau gauzatzeko lanabesak aldarrikatzea.
- Erakunde publikoekin lankidetzak sakonduz lanean aritzea.

Kontseiluak jo eta ke lan jardun ondoren dagoeneko eginak zenbait sektoretako proposamen zehatzak, sektorea euskalduntzeko euskararen erabilera martxan jar dezaten.

## 6. Ondorioak:

Aurreko lerroetan nahasian aurkeztutako datuak laburbilduz, besteak beste, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

Euskarak hainbat eremutan aurrerakuntza handia izan badu ere oraindik ez du galtzeko arriskua aldendu.

- Indarguneak eta ahuleziak gogoan hartuz, oraindik hainbat geratzen zaigu gure hizkuntza eraberritu eta sendotzeko.
- Ezinbestekoa da, bestalde, euskara salba dadin, gizarte-ko eremu handi guztietara eramatea, euskaldunon hizkuntza eskubideak benetan gauzatzeko ezinbestekoa delako gizarte eremu guztiak euskalduntzea.
- Euskararen geroa euskaldun guztion esku dugu. Ez bakarrik batzuenen. Euskaldunok euskara ikasi nahiz

erabiltzeko konpromisoa hartzen dugun neurrian indar-berrituko da.

- Etorkizuna gure alde izango dugu, iraganean eginiko akatsak zuzendu eta konponbideak lehenbailehen abian jartzen baditugu.

Beraz, euskara ataka larrian baldin badugu ere, gure herriak benetan euskaldun izaten jarraitu nahi baldin badu, eragozpenak eragozpen lortuko du.

*Patxi Uribarren Leturiaga*